

2.- Desberdintasunen oinarri informatiboak: aurrerapenak eta gabeziak.

Desberdintasunak egun duen joera aztertu ahal izateko ezinbesteko dugu horren berri ematen duten datu iturri fidagarriak izatea eta hauetan oinarrituz egoeraren isla izango diren adierazleak osatzea. Egungo benetako egoera alor honetan ordea, oso etsigarria da.

Alde batetik, nazioarteko alderaketak egiteko herrialdeetako monetan izendatutako errentak amankomuneko monetan bihurtzeko prozesuak arazoak sortzen ditu. Izan ere, hori egiteko bi bide nagusi daude. Bata, truke tasa ofiziala erabiltzea, eta bestea, erosteko ahalmen berdintasuna islatzen duten truke tasak erabiltzea. Baina bi bideek ez dute emaitza bera ematen. Aukeratu egin behar da eta horrek ondorioak ditu azken emaitzetan (ikus 1. eranskina). Prozedura aukeratzearekin ez dira bukatzen arazoak. Bakoitza aurrera eramateko ere bere zailtasunak daude eta. Esaterako kanbio tasa ofiziala erabiltzen denean, urteko batz besterenta hori zein kanbio tasa ofizialetan bihurtu behar den erabaki behar da. Kanbio tasa malgua denez kasurik gehienetan urtean zehar moneta horrek erreferentziako monetarekin izan duen kanbio tasa ugarien artean aukeratu egin behar da. Zein ordea? une horretakoa?, urte hasierakoa? Amaierarakoa? Etab. Normalean urteko batz besteko tasa ofiziala erabiltzen da. Era berean, erosteko ahalmen berdintasuna erabiltzen denean ere arazoak ugari dira. Izan ere, logika bera aplikatuta ere egun hiru iturrietako kanbio tasa ezberdin daude erosteko ahalmen berdintasunean ere, beraien artean alde nabarmenak daudelarik (ikus 2. eranskina).

Beste alde batetik errentaren banaketaren gaineko datuen eskasia eta fidagarritasun eza dago. Izan ere, arestian aipatu errentak (tokiko monetan izendatuak, noski) herriarren artean nola banatzen diren inguruko datuak oso urriak eta sarritan fidagarritasun eskasekoak dira. Herrialde aurreratuen artean ere oso noizbehinka argitaratzen diren datuak dira (ikus 3. eranskina).

Datuetan eta prozeduran aukerak egin behar direnez, ulertzekoa da nazioarteko errentaren banaketaren egungo egoeraren inguruan azkenaldian argitaratutako hainbat artikuluk ondorio eta adierazpen oso kontrajarrietara iristea (ikus hurrengo ataleko 1go kutxa). Kontua da, batzuk kanbio tasa erabiliz egin dituztela alderaketak eta besteek eros ahalmen berdineko dolarretan egiten dituztelarik -nahiz eta, ikusi dugunez, bigarren mota honetako alderaketak baino ez duten benetako esanahirik. Batzuk herrialde aberatsenen eta pobreenen arteko desberdintasunak aztertzen dituzte besteek herrialde aberatsena eta pobreenaren artekoa egiten dutenean. Beste batzuk munduko populazioaren -ez herrialdearen- errenta hartzen dute kontutan. Honek nahasketa izugarria sortzen du.

Horregatik oso garrantzitsua da konturatzeko zein motatako errentaren banaketaz ari den ikerketa bakoitza. Batzuk nazio-arteko errentaren banaketaz eta maila honetako desberdintasunaz ari dira, hots, herrialdeen arteko batz besteko errentaren artekoa, besteak munduko desberdintasun globalaz ari diren bitartean, hau da, munduko populazioaren artean dagoen errentaren banaketaz eta desberdintasunaz, herrialde bakoitzeko desberdintasunak ere kontutan hartzen dituenak.

Kontua da bigarren mota honetako desberdintasunen bilakaeraren inguruko datu fidagarriak urriagoak direla. Barne desberdintasunen berri ematen dituzten datuak oso herrialde gutxientzat daude eskuragarri eta data jakin batzuetarako bakarrik. Hauek

horrela munduko errentaren banaketaren benetako egoera zein den jakitea oso zaila da. Egoeraren argazki partzial eta behin-behinekoa baino ezin dugu eskuratu.